

www.ber2web.com



Adi, prest... Orain!



Gestión de proyectos Ber2

Info@ber2web.com

Tel: 652 759 794

4. Helburuak

Helburu orokorrak

- a) Harreman positiboak sustatzeko trebetasunak garatzea
- b) Komunikazioa hobetzea
- c) Sare sozialetan arrisku-portaerak detektatzea
- d) IKT eta sare sozialen arriskuak identifikatzea

Helburu zehatzak

ARRISKU-JOKABIDEAK

Parte hartzaileek sare sozialetan eta, oro har, teknologiaren erabilerari dagiokionez, ikuspegi kritikoa izatea bilatzen da. Norberak egiten dituen edo beste pertsona batzuek eskatzen dizkieten jokabide toxiko edo arriskutsuak identifikatzeko gai izatea da helburua

KOMUNIKAZIOA

Ezinbestekotzat jotzen dugu parte-hartzaileek hizkuntza ez-berbala eta ahozko komunikazioaren garrantzia ikastea. Aldi berean, beren komunikazio-trebetasunak hobetzen saiatuko gara.

GARAPEN PERTSONALA

Kanalaren bitartez eta eskolako zeharkako balorean gai espezifikoak lantzeko ere erabiliz, taldearen baloreak lantzea bilatzen da. Gainera, garrantzitsutzat hartzen da autokontzeptua eta norberarenganako konfidantza lantzea ere.

HARREMAN POSITIBOAK

Oinarrietako bat da parte-hartzaileek gaitasun sozialak ikastea eta elkarrekin modu positiboan erlazionatzeko gai izatea, elkar errespetatuz eta onartuz.

5. METODOLOGIA

Aurretik aipatutako helburuak lortzeko, hainbat jarduera, jolasek, dinamikei eta abarrei esker lortuko dira. Horrenbestez, jarraian, proiektu hau abiatzen den metodologia orokorra eta adin-talde bakoitzaren bilakaera-ezaugarrien arabera erabiliko diren metodologiak aurkezten ditugu.


5.1. METODOLOGIA OROKORRA

Proiektu hau une oro metodologiako premisa multzo batetik abiatzen da, adin-talde guztiekin burutzen direnak:

Ikasleak, une oro, beren ikaskuntza eta garapen prozesuaren protagonistak izango dira: ez dira pasiboak izango, baizik eta, ahal den neurrian, sortzaileak izango dira parte-hartze dinamiko baten bidez. Horrela, hausnarketa eta ikaskuntza prozesu osoarekin konprometituta sentituko dira.

Proposatutako jarduera eta dinamikak adin-talde bakoitzaren ezaugarri eta beharren arabera egokituta daude. Horrela, metodologia honek interesa, motibazioa eta ezagutza berriak lortzea estimulatu du.


Banakako parte-hartze aktiboaz gain, ezinbestekoa da ekarpenak taldearekin partekatzea, ezagutza kolektiboa eraikitzeko, elkar ikasteko eta iritziak eta esperientziak elkartrukatzeko, batez ere adin handiagoko kideen artean.



Proiektu honetan arrakasta lortzeko ezinbestekoa da komunikazio eraginkorreko prozesuak sustatzea maila guztietan, bai parte-hartzaileen artean, bai parte-hartzaileen eta inplikaturako profesionalen artean.

Hau ez da ulertu behar errealitatea hobeto interpretatzen laguntzen digun tresna gisa bakarrik eta, horrela, gure esku-hartze proposamenak hobeto egokitzeko, baizik eta errealitate hori aldatzeko estrategia gisa, gizarte-egoera hobetzeko eta generoarteko harreman bidezko bat lortzeko konpromisoa ere badela. Genero ikuspegia gure metodologiarean barne hartzeak populazioaren beharrezakietara hurbilpen hobea eskaintzen digu, esku-hartzearen kalitatea igotzen du eta gizarte demokratiko eta berdinezaleago bat lortzeko laguntza ematen du.

Premisa metodologiko guzti hauek dinamikak eta jarduera programatu baina malguen bidez garatuko dira (ikusi dugunez, taldearen ezaugarri eta parte-hartzeari egokituko zaizkie). Azalpen ahozko klasikoak ahalik eta gehien murriztuko dira, gehienbat taldean lan egitea sustatuz. Horretarako, giro egokia sortzeko lan egingo da, hala, haurrak askatasunez adierazteko espazio eroso eta konfiantzazkoa izan dezaten.



5.2. PROPOSAMEN METODOLOGIKOAK

Aipatu bezala, adin-taldearen arabera landu beharreko gai bakoitza bere garapen-prozesuaren ezaugarrien arabera planifikatuko da (komunikazio-trebetasunak, ulertzeko eta hausnartzeko gaitasunak eta garapen ebolutiboa).


Jarraian, proiektu hau planteatzeko oinarritzat hartu ditugun adin-talde bakoitzaren ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditugu, baita ikasturte bakoitzean landu beharreko gai espezifikoak ere.

- DBH 1

Epe honetan, adin berekoen arteko harremanak oso garrantzitsuak bihurtzen dira, izan ere, nerabeentzako sozializatzeko talde garrantzitsuena lagunen taldea izaten da. Talde horretan nerabeen identitateak osatzen dira eta elkarrekin harreman afektiboak sortzen dira. Egokitzeko beharra, onartua izateko eta aitortua izateko nahia, batzuetan baloreak egoki eta positiboki eskuratzea zailtzen du, eta horrek portaera desegonkor eta negatiboak sustatzen ditu euren arteko harremanetan. Garrantzitsua da adin hauetan baloreak eta nerabeek lortzen eta mantentzen dituzten harremanak bezalako kontzeptu funtsezkoetan eragina izatea. Gure haurrek identitate kohesionatu bat izan dezaten eta pertsona eraikitzaile, errespetuzko eta inklusiboak izateko, baloreak eta jarrerak lantzen hasi behar dugu.

- DBH 2

Norbera ezagutzea da bizitzan egiten dugun lan zailena eta luzeena. Pertsona arrazionalak gara, etengabe aldatzen baitugu ikusteko, funtzionatzeko eta egoera desberdinetan jokatzeko modua. Norbera ezagutzea aldaketa horiei modu positiboan aurre egiteko funtsezkoa da. Autoestimak oso paper garrantzitsua jokatzeko du etapa honetan. Nerabe bakoitzaren iritzia bere bizipenak, formakuntza eta informazio maila eta sozializatzeko taldeak direla eta sortzen da. Autoestimak laguntzen die iritzi zintzo bat ematen eta mantentzen, ezaguna den edo ez den egoera batean, talde presioan erori gabe. Etapa honetan esperimendatzeko dituzten aldaketa fisiko eta psikologikoen aurrean, autoperzepzioak aldatu egin daitezke. Segurtasun eza agertzen da urte hauetan eta nerabeek beren buruaren inguruan duten irudi fisiko eta barneak zailtasunak edo laguntzak ekar ditzake trantsizio prozesuan. Horregatik, beharrezkoa da kontzeptu hauek lantzea, gure haurrei tresnak emateko eta euren garapen osoa bultzatzeko.




- DBH 3

Hirugarreneko ikasleak pubertaroan daude, nerabezaroaren etapa bat, non aldaketa fisiko gehienak gertatzen diren. Nerabezaroan, batez ere aldaketa psikosozialak gertatzen dira. Lehenengoak mutil eta neska guztietan antzekoak dira, baina bigarrenak aldaketa historiko eta kulturei men egiten die. 15 urtetik gazte heldura bitarteko aldian zentratuko gara. Adin honek jarrera eskarmentudunak azaltzen ditu, non ongizate propioa edo asebetetze propioa beste pertsonen interesen aurretik jartzen den. Adin honetan, norbere buruan pentsatzen dute, eta itxura fisikoa da haien kezka nagusia, beti elkarrekin konparatzen ari direlako eta euren lagunen edo sare sozialen ezagutza handiagoa duten pertsonen onarpena bilatzen dutelako. Moda eta publizitateak estereotipo fisiko zehatz bat miresteko bultzatzen ditu. Hori ez badute, presio horrek bulimia edo anorexia bezalako nahasmenduak sortarazteko aukera du. Gurasoekiko interes txikiagoa dute, gurasoak ez baitira euren sozializazioaren zentro nagusia izaten jarraitzen, eta haiekin afekzio adierazpen gutxiago egiten dute. Hala ere, behar dute eta nahi dute heldu batek lagundu haien prozesuan. Momentu garrantzitsua da autoestima, autokonzeptoa eta identitatea lantzeko, izan ere, maiz aldatu egiten dituzte euren egoera emozionalak eta seguru ez daude.

- DBH 4

Aurrez komentatu dugun bezala, etapa honetan nerabeen artean harreman afektiboak garatzen hasten dira. Autoestimazko eta identitatezko oinarri on batek harreman afektibo osasuntsuak ezartzen lagundu dezake. Beharrezkoa da nerabeek behar duten informazioa izatea, egoera edo portaera negatibo edo toxikoak detektatzeko gai izan daitezen. Autoestimak, nerabe bakoitzaren autoaren onarpen mailak eta identitatearen osaketak funtsezko elementuak izan ditzakete portaera edo rolak mantentzeko, eta horiek ez dira eraikitzaileak edo positiboak izango haientzat. Horregatik, identitatearen osaketan eta bizi dituzten egoeren laguntza beharrezkoa da, izan ere, trebetasun, ezagutza eta informazio onekin, erabaki informatuak hartzeko eta haientzat toxikoak diren portaera edo egoerak detektatzeko tresnak izango dituzte.




- Batxi 1

Nerabezaroaren unetan, esperimentatzeko grinak eta taldean onartua izateko beharrak jarrera arriskutsuak hastea bultzatu ditzakete. Gure gazteek estimulu negatiboen inguruan bizi dira eta etengabe arriskuan jartzen dira. Garrantzitsua da mendekotasunei, arriskuei, harreman afektiboari eta drogenei buruz behar den informazioa ematea, hala, arriskutsuak diren jarrerak hasi ditzaketen egoera batean, behar den trebetasunarekin eta informazioarekin erabaki onak hartu ahal izateko. Nortasunak berriro garrantzi handia hartzen du, izan ere, nerabeek dituzten tresnak, ezagutzak eta trebetasunek erantzun egokiak emateko gaitasuna errazten dute egoera jakin batzuei. Adin honetan, hausnarketa eta pentsamendu kritikoa dira gehien erabiliko ditugun metodologiak, horiek galderak egiteko, arrazoitzeko eta jarrera edo pentsamenduak aldatzeko gai baitira.

- Batxi 2

Egoera komun askotan indarkeriaren normalizazioa presente egoten da, bai egoerari aurre egiteko tresna gisa, bai mito erromantikoen eta generoaren estereotipo eta rol sozialen mantentzeagatik. Beharrezkoa da pentsamendu kritikoa izatea indarkeriaren gertakariak eta portaera toxikoak detektatzeko, horiek ez direlako positiboak inorentzat. Etapa honetan, harremanaren kontzeptua hobeto osatuta dago eta jarrera edo rolak hasi dira harreman helduei antzekoak izaten. Hori dela eta, garrantzitsua da indarkeriaren, desberdintasunaren edo diskriminazioaren egoerak saihestea bikoteen artean, etorkizunean ez daitezen normalizatu eta iraunarazi. Haien pentsamendu kritikoa eta informazio kalitatezkoa lagungarri izan daitezke gure gazteei genero-rolak edo adin honetan ikus daitezkeen portaerak aldatzen laguntzeko, horiek mugatu egiten baitute euren garapena eta autoestima. Prebentzioak garrantzi handia du, izan ere, gure komunitateko helduek portaera toxikoak mantentzen dituzte beraiek eta euren bikoteekin. Saihestu dezagun gure nerabeek berdin egitea.





5. Sare Soziala

Helburuak

- Babes faktoreak eta arrisku faktoreak ezagutzea
- Iritzi ezberdinak errespetatzea
- Genero berdintasuna lantzea

Adierazleak

- Laguntza eskatzeko eskariaren kuantifikazioa
- Partaidetza maila
- Arrazoi edo interbentzioen kalitatea

Ideen ekitaldia por ideia zaparrada

Joko dinamikoak, ideien ekitaldia eta taldeko hausnarketa

DENBORA

- 10 minutu hasierako azalpena
- 15 minutu fitxaren jardura
- 15 minutu banakako azterketa
- 15 minutu jardura komunaren pizarra
- 5 minutu amaiera
- 60 MINUTU

JARDUERA AZALPENA

Irakasleak taldeari galde egingo dio ea jakin nahi duten zer diren babes faktoreak eta zer diren arrisku faktoreak. Taldeari eskatuko zaie bikoteetan banatzea, kontzeptu biak azalduko dira eta bikoteei orriak banatuko zaizkie. Orri horietan egoera edo esaldi desberdinak egongo dira, eta arrisku faktore eta babes faktore gisa taldekatzea eskatuko zaie. Bikote guztiak egindako lana amaitutakoan, taldekideekin partekatuko da. Bikoteetan, halaber, pentsatzeko eskatuko zaie zein arrisku faktore dituzten bakoitzak eta zein babes faktore dituzten. Irakasleak orriak bilduko ditu eta pizarra gainean, modu anonimoan, ikasleen arrisku eta babes faktoreak idatziko ditu. Amaitutakoan, ikasleek ikuspegi bisual bat izango dute gehien eta gutxien errepikatzen diren faktoreei buruz, eta ondorio orokor bat ateratzeko aukera izango da. Amaitzeko, galdera egingo zaie ea badakiten zein legek babesten dituzten Interneten egindako okerreko praktikak saihesteko. Legeei buruz azalpen labur bat emango da eta adibide batzuk jarriko dira.